ARKO

KULTURA: GOIKOBALU, BIGARREN

Arrasate PRESS

2001.eko
maiatzaren 4a
538. zenb.



Mon-Dragon Miranouhs

Txakurrak kirolerako heziz

Ibarretxe da baietza

EUSKO ABERTZALEAK

urteurrenak

Auzokideak haserre Gelmarekin

■ **63. zenb.**
(1990-05-11)

Nafarroa etorbideko biztanleek Gelmaren aurkako salaketa aurkeztu zuten epaitegian, enpresatik hauts beltza leihoetatik barrena etxeetara sartu, eta hautsa teilatuan pilatu eta ur hodiak itxiz, ura etxeetara sartu baitzitzaien. Horren ondorioz, bizilagunak hilabetez zaborra Gelmara botatzen aritu eta udalak Gelmari hondakinen gaineko txostena aurkezteko agindu zion.

Asa argazki taldea sortu

■ **63. zenb.**
(1990-05-11)

Arrasateko 20 bat argazkilarik Asa taldearen aurkezpen ofiziala egin zuten Monterron kultura etxean. Taldea honako helburuekin sortu zen: herriko azpiegitura antolatzea, argazkian zegoen hutsunea betetzea, herriko hainbat talderekin lankidetza sustatzea eta urtean ikastaro eta ekintzak antolatzea. Horretarako, udalari egoitza eta zenbait material eskatu zizkioten.

AEDren lehen mintegia

■ **63. zenb.**
(1990-05-11)

AED elkarteak lehenengo mintegia egin zuen. Mintegia AEDko lan-arlo desberdinetan ari zirenei eta bazkide guztiei iritzi, kezka, kritika eta proposamenak plazaratzeko prestatu zuten. Horrez gain, elkartearen egoera aztertu, jardueraren balorazio kritikoa eta AEDren lanaren norabidearen teorizazioa egin zuten. Bi ekitaldi egin zituzten.

besteek esana

«Maiatzaren 1eko banaketa euskal sindikatu gehiengoaren harreman-krisiaren adierazgarria da. Bestalde, desberdintasun ugari dago gizartean, eta horiek salatu beharra dago. Egungo gizarteek desberdintasunak sortarazten dituzte, ez dira gai horiek barik eraikitzen, bidegabeak dira. Horren adierazle da egunotan Espainiako parlamentuan PP bultzatzen ari den lan erreforma berria. Horren bitartez, emakumeek, gazteriak, etorkinak eta epe luzeko langabeek langile desberdinak direla onartu eta lan egin nahi izanez gero, gainerakoak baino zapalduagoak egon beharko dute. Filosofia bera du Atzerritarren Legeak. Gizarteek halako legeak onartzearen aurka gaude».

Jabier Abalde
ESK sindikatuko partaidea
Gara
(2001eko apirilaren 29a)

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran **Kazetariak**: Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitatea**: Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:**: Sergio Azkarate. **Administrazioa**: Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua**: Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemailea:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna**: Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Arrasateko Udalaren laguntzaz | *Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz* | *Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz*

aurkibidea

- Lehen begiratua **3**
- Asteko hitzorduak **4**
- Inkesta **5**
- Astearen errepasoa. **6**
- Orain eta hemen. **7/8**
- Txutxumutxuak **9/10**
- Hauteskundeak **13**
- Asteko gaia **14/15**
- AKP **16**
- Kirolak jokoan. **19/21**
- Kulturaren txokoa . . . **22/24**
- Uhinetan barrena **25**
- Foto zaharra **26**

Goikobaluko Nestor, Rakel eta Eli, RNEko *Clasicos Populares* saioko aurkezleekin Griñonen.

ZERBITZUAK

Eritetxeak
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Barikura 14:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan ..... egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
Barikura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan ... 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria ... 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: ... 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak
Gipuzkoako anbulantziak 943 45 87 44

Ertzaintza
Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

Matxurak
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak
Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	
19:00 (elebiduna)	10:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jaiegun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

odol emaileak

Maiatzaren 7an eta 8an, odol emate saioak egingo dira anbulatorioan, 16:15etik 20:00ak bitartean.

helduen heziketa **ikastetxea**

Helduen Heziketa Ikastetxean (EPA) matrikulatzeko epea zabalik dago. Maiatzaren lehenengo hamabostaldian izango duzue izena emateko aukera. Ferrerias kaleko 28. zenbakian egin ahal izango duzue hori.

udalekuak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren udalekuetarako izena emateko epea maiatzaren 7an bukatuko da. 14-17 urte arteko gazteei zuzendurik daude. Huescan, Bidarrain, Almerian, Castellonen, Avilan... egingo dira; argibide gehiagorako, zoazte Gazte Bulegora. Bestalde, Txatxilipurdik ere abian ditu udalekuak, eta izena emateko epea maiatzaren 7an hasten da.

52ko **kintoak**

52ko kintoek, 1931n jaiotakoek, kinto batzarra egingo dute maiatzaren 19an. 12:30ean, meza izango dute parrokian; 14:30ean, bazkaria batzokian. Izena emateko, jo ondorengoengana: Angel Dominguez, Luis Gutierrez, Julio Marañon, Paco Bonet edo Rafa Fernandez. Maiatzaren 14a duzue azken eguna.

gorputza **landuz**

Gorputz lan bioenergetiko taldea antolatu du Arrasate Yoga Elkarteak, eguaztenero, 18:30ean; deitu 616 96 57 95 telefonora. Halaber, hastapen masaje ikastaroa ere eskaintzen du elkarteak: 943 79 66 98 edo 943 79 35 76.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 4
• Zabala, Zarugalde
Zapatua, 5
• Ruiz, Magdalena
Domeka, 6
• Morales, Araba
Astelehena, 7
• Azkoaga, Ferrerias
Martitzena, 8
• Azkoaga, Iturriotz
Eguaztena, 9
• Corcuera, Aranbarri
Eguena, 10
• Irizar, Erguin

eguzki-laru **prestatzen**

Eguzki-Laruren eguna prestatzeko parte hartze epea maiatzaren 15era arte dago zabalik. Izena emateko, deitu 943 77 17 37 telefonora eta galdetu Jonegatik edo Rebekagatik.

lourdesera **erromesaldia**

Maiatzaren 24tik 28ra bitartean, Gipuzkoako Elizbarrutiaren astea da Lourdesen. Arrasateko osasun pastoralak autobusak antolatu ditu maiatzaren 26an joan-etorria egiteko. Izena emateko, jo Halcon Bidaiak-era. Izena ematea 2.600 pezeta kostatzen da.

Zein da lanbiderik onena? Eta txarrena?

Martitzenean Langilearen eguna izan zen. Langile askok egoera eskasean lan egiten dute.

Ainhoa Landa
(Ikaslea)

Onena zein den norberaren gustuen araberakoa da. Hori bai, txarrena garbitzaileena da. Oro har, beharrezkoak diren lanbideak dira txarrenak.

Juan Jose Flores
(Erretiratua)

Nire ustez, lanik onena bulegoko lana da, eta txarrena, nekazari lana. Ni neu horretan ibili izan naiz eta badakit zer den…

Deiane Arrieta
(Ikaslea)

Lanbiderik onena norberari gehien gustatzen zaiona da. Txarrena, duda barik, garbitzaileena.

Juan Maria Ansuategi
(Etxekogizona)

Lanik onena koltxoiak probatzea da. Txarrena, ertzaina izatea.

Pilar Erdozia
(Langilea)

Onena banketxean lan egitea da eta txarrena, garbiketak egitea; batez ere, emakumezkoek egiten dute hori.

Iker Garzia
(Ikaslea)

Ingeniaritza ikasi dudanez, arlo horretako lanen bat egitea gustatuko litzaidake. Txarrena katea da. Jendeak esaten duenez oso gogorra da.

Juliana Matilla
(Etxekoandrea)

Onena bulego batean eserita egotea da, eta txarrena nekazaritza lana da.



Juan Mari Urrutia
(Langilea)

Nik ez du ezagutzen lanbide onik. Txarrenak kobratu barik egiten diren lanak dira.

MARKO-JARTZEAK
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



USTEAK USTE

Garrantzi handiko hauteskundeak?

Hauteskunde beroberoak ia gainean dauzkagu. Politikoek eta hedabideek izugarrizko garrantzia ematen diete halako zitei; hautesleen artean, ordea, era guztietako iritziak ematen dira, noizbehinka botoa ematearekin soilik nahikoa ez dela, beste batzuen artean. Bitartean, Espainiako Estatuko bi alderdi nagusiek izugarrizko kanpaina bideratzen dihardute aspaldidanik, izua eta askatasuna direla eta ez direla, eta antza denez, denbora laburrean Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria nabarmen haztea ere lortu omen dute. Horra hor, posta bidezko botoa hainbeste biderkatu izana, honen erakusle. Hau da marka! Horren aurrean, alderdi abertzale eta antzekoek EAEko biztanleei botoa ematera joan eta dagokion erantzuna emateko eskaera egin diete. PP eta haien lagunek estatuan, Araban eta Nafarroan bultzatzen ari diren neurrigabekeriak ikusita, PP-PSOE gorantz joz gero gainontzekoentzako gauzak are txarrerantz joan daitezke, zalantza barik, euskararen bizi iraupena barne.

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ Sanjuanak prestatzen

Udala dagoeneko hasi da San Juan jaiak prestatzen. Atzo egin zuen lehenengo batzarra herriko zenbait talderekin. Besteak beste, herritarrek dituzten ideiak eta proposamenak aztertzea izan da batzarraren helburua, eta hemendik aurrera lanean segitzeko bidea ere zehaztu dute.

■ Pedrotxori omenaldia

Ikurrin artean iritsi zen Pedro Guridi "Pedrotxo" herriko plazara, txistulariek lagunduta. Han makina bat herritar zain zuen, tartean, Goio Etxabe preso ohia. Goiok berak Agurra egin zion eta, gero, herriko hainbat taldek taula gainera igo eta "Pedrotxo"rendako berba batzuk izan zituzten: Haika, Senideak eta Herri Batasuna, besteak beste.

Ekitaldi politikoa eta gero, manifestazioa egin zuten eta eguna afari batekin bukatu zuten Uarkape pilotalekuan.

■ Automobil berria

Herriko Udaltzaingoak automobil berria behar duela eta, lehiaketa antolatu du udalak. Oraingo asteko gobernu batzordeak lehiaketaren oinarriak onartu ditu eta orain eskaintzak jaso eta zeini eman erabaki beharko du. Ford Escort motako auto bat erosteko asmoa du udalak.

■ Musakolarako karpa

Musakolako alkatetzak karpa mugikorra erostea proposatu dio oraingo asteko gobernu batzordeari. Musakolan auzo bazkariak eta antzekoak egiteko egoitza handirik ez dagoela-eta egin du proposamena eta udaleko gobernu batzordeak onartu egin dio. Orain, milioi eta erdi pezeta pasatxoko aurrekontua zehaztu du karparako eta erostea besterik ez da falta. Auzoko jaietan estreinatuko dute, San Isidro plazan. Eta gero, bestelako ekintzetarako erabiltzeko asmoa dute.

■ Istripuen kontra

Egubakoitzean, makina bat langile kalera irten zen protesta egitera. ELA, LAB, ESK eta STEE/EILAS sindikatuek deituta, ordubeteko lanuztea egin zuten "Lan istripuen kontra eta lan osasunaren alde".

Mondragoen lanuztea nahiko arrakastatsua izan zen, lantegi garrantzitsuenetako langileek bat egin baitzuten grebarekin: Fagorrekoek, JMAkoek, IFAMekoek eta herriko udalekoek, esaterako. Lantegi aurrealdera irten eta Euskal Herrian gertatzen diren larregiko lan istripuak eta lanbide gaixotasunak salatu zituzten, eta baita lan baldintza eskasak, aldi baterako kontratuak, ekoizpen sistemak eta prestakuntza espezifikorik ez egotea ere. Sindikatuen helburua da istripuei aurre hartzeko neurriak jende guztiak hartzea.

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

Altzariak
Diseinua
Apainketa
MARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

Hildako langileak gogoratuz

Nazioarteko Langileen Egunean izan zen martitzenean. Sindikatuek hiriburuetan manifestazioak deitu zituzten, eta Mondragoen ere egin zituzten mobilizazioak. Esaterako, Haika taldeak deituta, eguerdian manifestazioa izan zen herrian, eta Gazte Ekimenak deituta, berriz, 2000. urteak lanean utzi digun balantze beltza gogorarazteko parodia egin zuten zenbait gaztek. Lan baldintzak hobetzeko eta ezegonkortasunaren kontrako mezuak jarri zituzten Monte-

rrongo parkean, eta gero, belarretan gurutzeak sartu zituzten, iaz lan istripuz hil ziren 154 langileak gogoratuz.

Gaztetxoendako ekimenak abian

Txatxilipurdi elkartea dagoeneko badabil umeendako urtero antolatzen dituen ekitaldiak prestatzen. Batetik, maiatzeko zapatu guztietan ludoteka ibiltaria Erguin auzora eramango dute. Hortaz, 3tik 12 urtera arteko auzoko ume guztiek Erguin herri eskolan izango dituzte ludotekako jolasak eta bestelako materiala eskura.

UDALEKUAK

Horrez gain, udako udalekuetara joateko izena emateko epea zabalik dago. Datorren ekainaren 15era arte izango da zabalik, eta epe hori errespetatzea komeni da; izan ere, antolatzaileen esanetan, aurten ez dute onartuko epez kanpo izena ematerik. Bulegoaren ordutegia 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara izango da.

Bi urtetik 16 urtera arteko gazteendako antolatzen dituzte udalekuak. Arrasaten ibiliko dira gaztetxoenak; 10-12 urtekoendako, berriz, martitzen eta eguenero antolatu dituzte txangoak: zortzi, guztira. Eta nagusienendako kanpaldiak izango dira aukeran. Beintzan (Nafarroan) 10-12 urtekoendako; Orion 12-14 urtekoendako eta Puente Viesgon (Kantabrian) 14-16 urtekoendako.

Osasun Astea

Maiatzaren 10ean hasita, Arizmendi ikastolak osasunaren gaineko jardunaldiak antolatu ditu. Hainbat gai landuko dituzte: ahoaren garbitasuna, elikadura, gosariaren garrantzia... Horrekin batera, osasunarekin lotutako ekintzak egingo dituzte: antzerkiak, eskulanak eta abar.

Halaber, senideendako eta irakasleendako hitzaldiak antolatu dituzte. Eguenean, maiatzak 10, izango da lehenengoa, Aretxabaletako Santa Rita haur eskolan. Janariarekin sortzen diren arazoak aztertuko dituzte orduan. Gero, maiatzaren 15ean, martitzena, larrialdi egoeretan nola jokatu aztertuko dute Eskoriatzako Almen ikastolan. Eta azkenik, maiatzaren 17an, haur hezkuntzan dagoen mugimenduaren beharraz jardungo dute San Viator Txikiko aretoan.

Lourdesera erromesaldia

Maiatzaren 24tik 28ra, Gipuzkoako Elizbarrutiaren astea ospatuko da Lourdesen. Hori dela eta, osasun pastoralak joan-etorria egiteko autobusak antolatu ditu. Goizean irtengo dira, 06:00etan, Garibaiko autobus geltokitik. Itzulera, berriz, iluntzean izango da, 22:30ean, "Zuzien prozesioaren" ondoren. Izena ematea Halcon Bidaiak agentzian egin behar da; autobusak 2.600 pezeta balio du.

ARRASATE HOTELA

Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

Egitamu Orokorra bukatzear

Osoko bilkurak onartzea. Horixe bakarrik falta da Mondragoeko Udal Antolamendurako Egitamu Orokorra bukatu eta herritarrei jakinarazteko. Oraingoz, alkateak aditzera eman duenez, herritar guztiek jasoko dute egitamu orokorraren gaineko informazio zuzena. Horretarako, 11.000 esku-orri aterako ditu, gero herriko etxebizitza guztietara bidaltzeko. Baina, hori ere osoko bilkurak onartu eta gero egingo dute. Era berean, jendaurrean ere jarriko dute egitamua; seguruenik, ekainetik irailera arte. Hortaz, osoko bilkurak onartzen duenean, herrian edozein lan egiteko behin betiko araudia indarrean sartuko da.

Erretiratuendako eta gazteendako laguntzak

Udalak oraingo astean erabaki du herriko erretiratu eta gazte elkarteendako dirulaguntzak nola banatu. Erretiratuei dagokienez, guztira, bost milioi eta erdi pezeta banatuko ditu. Abaroak jasoko du kopururik handiena: ia hiru milioi. Musakola dator gero, milioi pasatxorekin. Uribarriko zaharren egoitzak milioi erdi pasatxo eskuratuko du eta Toki Argik, berriz, 700.000 pezeta pasatxo.

GAZTEAK

Eta gazte taldeei dagokienez, AEDk milioi erdi pasatxo jasoko du; Galtzagorrik ia milioi erdi; Gizaizpi Alai taldeak, berriz, ia 200.000 pezeta; Besaidek 150.000 pasatxo, eta Al Andalusek eta Corazon de Encinak 100.000 pezeta pasatxo.

Alde zaharraren eremua handiagoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak Arrasateko alde zaharraren eremua handitu du. Orain arte, Arbolapetan hasi eta Portaloirainoko zatia sartzen zen alde zaharreko eremuaren barruan. Hemendik aurrera, eremu horren barruan Gazteluondo eta Maalako Errebala ere sartuko dira. Horrek esan gura du, alde zaharreko etxebizitza guztiak moduan, bi kale horietan etxebizitzaren bat duenak hobariak izango dituela lanak egiteko orduan.

Senitartekoendako topaketak

Urtero moduan, aurten ere, senitartekoendako topaketak antolatu ditu Aita Menni ospitaleak. Domekan izango dira, XVI. aldiz. Goizean izango da harrera, 10:30ean; gero, 11:00etan, Eukaristia izango da eta eguerdian, herrialdeen jaialdia: Andaluzia, Extremadura, Galizia eta Euskal Herria (herrialde bakoitzak dastaketa gastronomikoa eta dantza emanaldia egingo ditu). Horren ondoren bazkaria dute, eta bukatzeko, zozketa eta dantzaldia.

Era berean, egun horretan ospitaleko sarreran "Kazetaritzako argazkigintzaren mende oso bat" izeneko argazki erakusketa ikusgai izango da eta bidezko merkataritzako produktuak salgai izango dira.

Jai berezi horrekin, "gaixoek euren senitartekoekiko harremanak lantzeko aukerak" eman gura ditu ospitaleak. Izan ere, "gertatu ohi da buruko gaixotasunaren eraginez lagunekiko eta senideekiko harremanak okertzen joatea, eta arriskua handiagoa da denbora luzez ospitaleratuak daudenen artean".

ELKARTASUN EGUNA (III)

Elkartasun eguna (1)

Elkartasun eguna -STOP- Maiatzak 26, larunbata -STOP- Egun osoan -STOP-Seber Altube plazan -STOP- Hirugarren urtez -STOP- Arrasateko Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakunde (GGKE) guztiek elkarlanean antolatua -STOP- Helburuak: -STOP- Lehena, Arrasatearrei herrialde txirotuen egoera gertuagotik ezagutarazteko aukera zabaltzea -STOP- Bigarrena, mundu bidezkoago baten alde lanean diharduten elkartasun taldeen lana ezagutzera ematea

-STOP- Hainbat ekintza antolatu dira: -STOP- Txikitxoentzako jokoak -STOP- Erakusketak -STOP- Tailerrak -STOP- Bidezko merkataritzako produktuen salmenta -STOP- Bideo emanaldiak -STOP- Bidezko merkataritzako produktuen dastaketa: kafea, txokolatea... -STOP- Kanpoko elkartasun taldeak ere etorriko dira -STOP- Arrasatear guztiak gonbidatuak: ikasle, jubilatu, langile, neskatila, mutilzahar, gazte, alargun, emazte, semeak... -STOP- Aukera paregabea -STOP- Ez gelditu joan gabe -STOP- Mundua zuzenduko badugu, denon laguntza beharrezkoa da -STOP- Gogoratu: Elkartasun Eguna, Seberren, 26an - STOP- Laster arte.

•

Beinat Arzadun.



HOLANDATIK BUELTAN, DOMINA ETA GUZTI

Ezaguna da Natalio Maiztegi oñatiarra, Abaroako erretiratuen etxean dantza irakasten du eta. Gurpil- aulkian dauden hainbat laguni ere ematen dizkie dantza eskolak. Holandan izan berri da talde hori, nazioarteko lehiaketa batean, eta berrehun bikote inguru artean seigarren egin dute.

KONTARI ETA KANTARI

Arrasate Irratian entzuleak esatari bihurtzen dira. *Bihurrikerietan* saioan, esaterako, hiru lagun polit hauek izan genituen: Edurne, Eider eta Olaia. Txiste kontari eta kantari ibili ziren, zein baino zein hobeto. Zuk hurrengoa izan gura baduzu, badakizu zer egin!

KIROL MOBIDA MONDRAGOEN

Ezohiko bazkaria egin zuten joan den eguenean Uarkapen: Iñaki de Mujika, Herri Irratiko kazetaria, etorri zen, *La Movida Deportiva* irratsaioa zuzenean egitera. Mahaiaren bueltan, besteak beste, Aitor Lopez Rekarte, Jose Javier Barkero eta Igor Arenaza jokalariak eta herriko futbolzaleak.

MARKO-JARTZEAK
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

Martxa eta estilo handiko arropa
Gili Gili
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

JAI ZAPORETSUAK

Aurten ere, "pulpeiroa" izan da San Andresko jaietako protagonistetako bat. Ezin zitekeen falta! Begira zelako animoz erakusten zuen merkantziaren kalitatea. Hori bai, ikusteko baino, dastatzeko zen ona olagarroa. Eta hara inguratu zirenek izan zuten horretarako aukera.



AURPEGI BERRIAK ARKON ETA GOIENAN

Zazpi lagun ditugu ARKOn eta Goienan praktikak egiten: Oihana Markinez, Elisa Gutierrez, Asier Latorre, Jabi Garcia eta Asier Asurmendi telebistan daude; Iban Idigoras, Arrasate Irratian; eta Iban Garai, administrazioan. Batzuk Andoaingo zinema eta bideo eskolakoak dira; besteak, Mondragon Unibertsitateko telekomunikabide ikasleak dira. Ongi etorri, guztioi... eta asko ikasi!

DANBORRADA POLITA, EZTA?

Bada, aurten ere horrelakoa izatea gura baduzue, badakizue, parte hartu! SUDCek zabalik du honezkero umeen danborradarako izena emateko epea. Ahalik eta polit eta koloretsuena izan dadin jardungo dute lanean.

Danona
KARROZERIAK
Konponketak, txapa eta pintura
Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

"PAL"
burdindegia, brikolage eta tresneria
Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

GUZTIEKIN BAKEA. GUZTION HERRIA.

MITINA

MAIATZAK 5, ZAPATUA, ARRATSALDEKO 7ETAN
ARRASATEKO UARKAPE PILOTALEKUAN

PARTEHARTZAILEAK
- JULIO ANGUITA
- JAVIER MADRAZO
- ANTXON KARRERA

www.ezkerbatua-izquierdaunida.org

LEIBAR ARRAINDEGIAK
Mitarte, 1 • Tf. 943 771379
Loramendi, 1 • Tf. 943 791833

ERRASTI Kioskoa
Durana, 19 • Tf. 943 799876

Maritxu Mertzeria
Araba Ibilbidea, 24
Tf. 943 79 23 53

GEMES EDERTZE ARETOA
Durana, 40
Tf. 943 799918

Jon HARATEGIA
Loramendi, 1 Tf. 943 79 71 69

Santa Kurtz
Janari denda
Tf. 943 79 28 19

MartiW BELOGINTZA - ERRATEGIA
Mitarte, 16 • Tf. 943 79 01 72

OROGERIA MERTZERIA LENTZ
Errekabarren, 3 • Tf. (dendakoa) 943 79 78 63 (etxekoa) 943 79 06 84

FARMA BIZI
Loramendi, 8
Tfno-Faxa: 943 771818

IRIARTE
Umeen denda eta lentzeria
Durana, 8 • Tfnoa: 943 79 10 96

BEHXEKOIA
MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA
BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea. Eliza aurrealdean
Tfnoa: 943 771357

TXILARRA ELIKADURA BEREZIA
Durana, 35
Tf.: 943 79 10 15
Loramendi, 9
Tf.: 943 79 44 28

Berezki Haragia Urdaitegia Fruitategia
IMANOL JANARI DENDA
Gorbea kalea. • Tfnoa: 943 79 05 83

Irudi ILEAPAINKETA PELUQUERIA MIXTA
Erreka Barren, 20 b. • Tf. 943 798090

ALBOKA Gazte moda
Durana, 36 • Tfno: 943 771610

HERRASTI AKEITA ETXEA
CAFES
Aralar kalea, 7 • Tf. 943 79 32 83

ELECTRONICA ZITZORROTZ
Automatismo eta mantenimendua • Instalazio elektrikoak
Alarmaren, sistema kolektiboak eta parabolikak
Telebista-audio-bideo salmenta eta konponketa
Satelite digitala
Otalora, 14 • Tfno-Fax: 943 791610

Zubia Oinetakoak
Politak • zapatak • gerrikoak
Mitarte, 14
Tfnoa: 943 79 16 00

NERIAN LORADENDA
Tfno.: 943 79 70 66

PAPERDENDA
IBER LOTERIA
Otalora, 2
Tfnoa: 943 79 79 24

ARETXARTEk bi bikoterentzako bainuetxe batean astebukaerako egonaldia zozketatuko du.

2001eko maiatzaren 11n izango da zozketa



- artegintza
- artesania
CENTRO COMERCIAL LEZAMA, 14
TFNO. 943 770792

IBARRA ESTANKOA
PRENTSA IKASMATERIALA
Bizkaia, 3 • Tf. 943 792377

CONECCIONES ASENSIO
JANTZIDENDA
Mitarte, 12 • Tfno.: 943 79 10 72

Lasai Masaje terapeúticoa Postura ariketa eta egokitzeak diplomatua
Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 • Tf. 943 770434

Frutan eta txarkuterian espezialitatea
Angelines AUTOZERBITZUA
Mitarte, 16 • Tfno.: 943 79 61 42

JOSU Urdaitegia Gozotegia Kroasantegia Janari prestatuak
Mitarte, 1 • Tf. 943 77 03 08

ARETXABALETA Fontanería ITURGINTZA
Durana, 16 • Tfno.: 943 79 17 53

Larrad Peluquería y Salón de belleza
·LUZATZEAK
·MIKROPIGMENTAZIOAK
·DEPILAZIO ELEKTRIKOA
Loramendi, 11 • Tf. 943 799079

G BUSTI ETA LEHORREKO GARBIKITZAK GARBITZE
Loramendi 6, Behea • Tf. 943 79 53 61

Etxabe harategia
Durana, 4 • Tf. 943 79 16 61

Jauregi okindegia
Otalora, 10
Tf. 943 79 57 47

BEGIONBO OPTIKA
Loramendi, 10 • Tf. 943 79 98 21

ZENIZ liburudenda
Herriko Plaza, 10
Tf. 943 79 75 53

Gertu Jakien elaborazioa eta salmenta
Mitarte, 10 • Tf. 943 770612

ALDE ARETXABALETA Murubide IFA
Murubide, 4 • Tf. 943 79 91 76

HAURRAK Umeendako moda
Lezama merkatal zentrua, 15
Tf. 943 77 14 86

MARI KARMEN oinetakoak KONPONKETAK
Errekabarren • Tf. 943 79 59 85

Eruteria Errekabarren 943 799643 Frutadenda

XUME Teladenda
Errekabarren, 14 • Tf. 943 79 11 19

1-10
LOREMENDI, 10
TEL: 943 77 01 26
20550 ARETXABALETA

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, ateak, oholtzak, leihoak etab.

AROZTEGIA LAGUN

Garagartza auzoa, 5-2. (Bixiena Baserria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde,5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltsaritza

Izcue Irurzun

Igeltsaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak

ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko eta poliuretanozko leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea,2-behea • **ARRASATE**
Tel./Faxa: 943 79 11 35

Elektrizitatea

ARANZABAL

KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

RRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77
Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53

AURI

Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak

EGIA iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

JOVI

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

Giltzak

• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketa • Larruzko gauzak • Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1
Tel./Fax: 943 79 76 03

Gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu 943 71 23 91 telefonora

Euskaldunek asko jokoan

EAJ-EA koalizioko ordezkariak Mondragoen izan ziren egubakoitzean. Laubide plazan mahaia jarri zuten eta hautagaiak Ferixalekuko azokan eta inguruan ibili ziren propaganda banatzen. Besteak beste, Gorka Knörr, Rafael Uribarren, Amaia Larrañaga, Jose Antonio Barriocanal eta Jose Mari Urizar aritu ziren. Gorka Knörr EA-EAJko ordezkariak adierazi zuenez, euskaldunek eta abertzaleek asko izango dute jokoan maiatzaren 13an. "Inportantea da guk bi poloren artean zabaldu dugun espazio hori ahalik eta zabalena izatea; mugarik gabeko bidea zabal dadin, mugarik gabeko elkarrizketa. Eta guk ezarritako oinarrizko irizpide horien gainean eraiki dadin hemen elkarrizketa, eta galtzaile atera gaitezen bai polo batekoak eta baita bestekoak ere".

Espero dut nazionalista espainiarrek susto ona hartzea; seguru nago horrek eraikiko duela hemen elkarrizketarako bidea".

Aldaketaren alde

PSE-EEko kideek ere lanean jardun zuten egubakoitz goizean. Furgoneta hartu eta herriko zenbait tokitan banatu zuten propaganda, ohiko arrosa eta guzti. Besteak beste, Barbara Duhrkop, Paco Garcia, Blanca Roncal eta Matilde Martin aritu ziren propaganda banatzen.

Sozialistendako, eurek bakarrik bermatuko dituzte askatasuna eta demokrazia Euskal Autonomia Erkidegoan.

Blanca Roncalek, PSE-EEko kideak adierazitakoaren arabera, "uste dugu hauteskunde hauek demokrazian eta herritarren arteko elkarbizitzan pentsatuz baloratu behar direla eta horren arabera bozkatu behar dela. Alderdi politiko bakoitzak hori lortzeko proposamen zehatzak ditu. Guk indarkeria ezabatzeari ematen diogu garrantzia eta horrexegatik aldaketa bultzatzen dugu, gobernuko alternantzia. Duintasunaren eta askatasunaren aldekoak gara, zentzu horretan elkarbizitza libre izateko".

Posta bidezko botoa

Posta bidez ere botoa eman daiteke: bozketa egunean herrian ez direla egongo aldez aurretik dakitenek, gaixotasunagatik edo soinezintasunagatik botoa ematera bertaratu ezin direnek edo Euskal Herrian inskribatuta dauden hautesleek eta behin-behinean atzerrian daudenek eska dezakete botoa posta bidez bidaltzeko agiriak. Eskaera-orria eta gutunazala norbera inskribatuta dagoen hautes erroldari dagokion Lurralde historikora bidali beharko du. Gero, eskabidea bete eta sinatu ondoren, Espainiako Estatuko edozein postetxetan aurkeztu ahal da. Eskabidea jasoko duen funtzionarioak nortasun agiria erakusteko eskatuko dio doanari, eta ez du fotokopiarik onartuko.

ASTELEHENA

Edozelan ere, posta bidez bozkatzeko eskabidea egiteko epea amaitu da. Orain, eskabidea egin duenak datorren astelehenera arte du boto hori hauteskunde mahaira bidaltzeko. Horrez gain, alderdi politiko bakoitza ere arduratzen da bere militanteen posta bidezko botoak bideratzeaz.



EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2001
ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO 2001

Mod. (EHOA) Ia Ikeka

HEB-AREN AGINDUAREN ZK. / Nº DE ORDEN OCE:

ESKABIDE EGILEAREN NORTASUNA ERAKUTSI TA EGILEKO HARTZAILEAREN ZIGILUA ETA DATA
COMPROBADO IDENTIDAD SOLICITANTE, FECHA Y SELLO DE LA OFICINA RECEPTORA
ZIGILUA ETA DATA: FECHA Y SELLO:

GAIA / ASUNTO: EGIAZTAPEN ESKABIDEA
SOLICITUD DE CERTIFICACION
DATA / FECHA

HAUTESLEAREN DATUAK (Mayúsculas idatzi letra lauetik)
DATOS DELLA ELECTORA (Por favor escriba en letra mayúscula):

Bizilekua: / Residencia en: ☐ ESPAINIAN / ESPAÑA ☐ ATZERRIAN / EXTRANJERO

LEHENENGO DEITURA / 1º APELLIDO
BIGARREN DEITURA / 2º APELLIDO
IZENA / NOMBRE
ENA ZK. / ATZERRIKO TXARTELA / Nº DNI / TARJETA DE EXTRANJERO
JAIOTESUNA / FECHA DE NACIMIENTO: Egunak / Día — Hilla / Mes — Urteak / Año
HERRITARTASUNA (Kasurian egokia dokumentuak bizirik ez) / NACIONALIDAD (Solo para residentes en el extranjero)

_____-ko Kondaira Lurraldeko _____ko Udaletxeko Hauteslea Erroldan izena emanda dagoenak:
que figura inscrito en el Censo Electoral correspondiente al Municipio de _____ Territorio Histórico de _____

Botoa eman ahal izateko agiriak jaso nahiko lituzke Espainiako helbide honetan.
Desea se le envíe la documentación para el voto al siguiente domicilio de España.

KALEA, PLAZA, ETC. / CALLE, PLAZA, ETC.
ZK. / NÚM.
ESKAILERA / PISO
ATEA / PUERTA
POSTA KODEA / CODIGO POSTAL
UDALERRIA / MUNICIPIO
PROBINTZIA / PROVINCIA

GAIXORIK EDO EZINDUTA DAUDENEK SOILIK
Gaixo edo ezindua izanez gero, egiaztatu egin beharko dute eta hometarako medikuaren jburtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, dohaneko zlurtagirra zein ordaindurakoa. Bere izenean eta behar bezala baimenduta diharduen pertsonaren ingurukko datuak:

SOLO RELLENAR EN CASO DE ENFERMEDAD O INCAPACIDAD
En el supuesto de enfermo o incapacitado, que lo acredite mediante certificación médica oficial, expedida en impreso gratuito o en impreso ordinario no gratuito.
Datos de la persona que actúa en su nombre debidamente autorizado:

ORDEZKARIAREN DATUAK / DATOS DEL REPRESENTANTE

LEHENENGO DEITURA / 1º APELLIDO
BIGARREN DEITURA / 2º APELLIDO
IZENA / NOMBRE
ENA ZK. / ATZERRIKO TXARTELA / Nº DNI / TARJETA DE EXTRANJERO
HELBIDEA (Kalea, Enparantza, Zenbakia, etc.) / DOMICILIO (Calle, Plaza, Número, etc.)
POSTA KODEA / CODIGO POSTAL
UDALERRIA / MUNICIPIO
PROBINTZIA / PROVINCIA
JAIOTESUNA / FECHA DE NACIMIENTO: Egunak / Día — Hilla / Mes — Urteak / Año

Botoa bere ohizko bizilekuan eman ezina adierazten du eta indarrean dagoen Hauteskunde Legearen 72. atalean zehaztutakoaren babespean, hauteste erroldan sartuta dagoenaren egiztagiria eskatzen du bere botoa postaz eman ahal izateko.

Expone la imposibilidad en que se encuentra de emitir el voto en el lugar de su residencia habitual y solicita que, al amparo de lo indicado en el art. 72 de la Ley Electoral vigente, se expida certificación acreditativa de figurar inscrito en el CENSO a los efectos de poder emitir el voto por correo.

INTERESDUNAREN EDO ORDEZKARAREN SINADURA
FIRMA DEL INTERESADO O REPRESENTANTE

_____-KO HAUTESLE ERROLDAREN SULEGOKO PROBINTZIA ORDEZKARI JN.
SR. DELEGADO DE LA OFICINA DEL CENSO ELECTORAL DE _____

(Zein Lurralde Historikotako hauteste erroldan dagoen inskribatuta adierazi beharko da)
(Andreas el Territorio Histórico donde figura inscrito en el Censo Electoral)

Posta bidez botoa eskatzeko eskaera

Mon-Dragon Miranouhs taldea

Txakurrak heziz, kirol bat bu

Mon-Dragon Miranouhs taldeak hiru urte daramatza txakurrak hezitzen. Ezin dezakegu esan herrian oso talde ezaguna denik, baina Aretxabaletara bidean, Arbizelain, askotan aurkitu ditugu txakurrekin ariketak egiten. Txakurrak heztea da euren helburua, baina txakurra gauza askotarako hez daiteke, eta talde horretako kideek kiroletarako bideratzen dituzte euren txakurrak.

Zazpi asteko txakur bat zirikatzen aurkitu dut Jon Iñaki. Txakurraren jabeak,Rubenek, irribarrez begiratu digu, kirol hori praktikatzeko jarrera bikaina erakutsi baitu txakur gazteak. Txakurra ondo heztea ez da lan erraza, eta pazientzia eta eguneroko lana oso garrantzitsuak dira. Gero etorri da benetako ikuskizuna. "Houdini"-k aspaldi adierazi digu kaiolatik irteteko amorratzen dagoela. "Houdini" belgikar arrazako txakurra da, eta atea ireki bezain laster ziztu bizian irten da. Orduan, jabeak txistu egin eta berehala hurreratu zaio txakurra. Argi dago txakurrak biziki miretsi duela jabea, eta agindutako edozer berehala betetzen du. Jon Iñakik frantsesez ematen dizkio aginduak; txapelketa asko Frantzian izaten direnez, gomendagarria da hizkuntza hori erabiltzea. Harrigarria da belgikar arrazako txakurrek zer-nolako jauziak egiten dituzten, baina arratsaldeko unerik politena taldeko kide batek babes jantzia jantzi duenean iritsi da. Txakurrak badaki zer datorren orain, eta bere jolaslaguna izango dena, nahiz eta hozka egingo dion, ez du begibistatik kentzen.

Babes ariketa horretan animaliak jabea babestu egin behar du, eta erasotzaileak jabea atzetik eraso behar duen unean, txakurrak haginka egiten dio. Jabeak nahikoa dela agindu arte iraun du erasoak, eta ordu arte erasotzaileak ez du bakerik izan. Babes ariketa asko dago, eta beste batzuk ikusteko aukera izan dugu. Erasotzaileak, pistola bat eskuan duela, mehatxu keinuak egin eta lasterka hasi da. Jabeak agindutakoan, txakurra itsu-itsuan erasotzailea harrapatzera joan da, hanketatik heldu dio eta nahiz eta erasotzaileak pistola hotsa erabili txakurra beldurtzeko, animaliak ez du amore eman. Azkenik, jabearen agindu batek jolasa bukatu dela iragarri du, eta txakurrak, buztana biziki mugituz, bere jolaskidea, hau da, erasotzailea, pozik agurtu du.

TXAKURRA HEZTEA, BEHARREZKOA

Txakurra hezteko modu asko dago, eta modu bakoitza jabeak erabakitzen du. Edozein metodo erabilita ere, argi dago txakurrak ondo hezita behar duela. Halaber, jendartean bizi behar bada, are garrantzitsuagoa da txakurra behar bezala heztea. Izan ere, Alemanian sistema berezi bat jarri dute abian. Txakur arrazaren arabera, administrazioak heziketa talde batean sartzera behartzen du jabea, eta adituen ustez, denborarekin hona ere iritsiko da. Azkenaldian, hainbat txakurrek istiluak sortu dituzte, eta komunikabideek lan ederra egin dute txakur horien inguruan esan beharrekoa esaten. Mon-Dragon Miranouhseko kideen ustez, txakurrek betidanik egin izan dute hozka, baina komunikabideek albiste bilakatu dute. Txakur harraparien gainean, Jon Iñakik argi dauka moda besterik ez dela eta txakurrak baino, heziketak daukala benetan garrantzia. 60ko hamarkadan, alemaniar arrazako txakurrak ziren arriskutsuak, 80ko hamarkadan, dovermanak txakur arriskutsu ospea hartu zuen, eta gaur egun, pit-bull eta rodweiler arrazei egokitu zaie. Hala ere, argi dauka alemaniar arrazako txakur bat

"Txakurren gainean esames ugari dago"

tzatuz

Mon-Dragon Miranouhs taldeko kideak, apirilean egindako ikastaroan.

diren ere oso argi izan behar du. Txakurrak gozatzeko aukera handiak ematen ditu, baina bakoitzaren neurriko txakurra aukeratzen ez bada, gozamena amesgaizto bihur daiteke, bai zuretako, bai txakurrarendako eta baita zure ingurukoendako ere. Mon-Dragon Miranouhs taldeko kideek txakurrarekin gozatzeko egiten dute lan, eta denbora luzea eskatzen duen zaletasuna baldin bada ere, emaitzak ikusgarriak dira. Oraingo domekan ere Arbizelain izango ditugu, hortaz, aukera paregabea duzue hara hurbildu, taldea hobeto ezagutu eta heziketa onaren emaitzak ikusteko. ■

Xabier Urzelai

"Halako batean, bazirudien Estatuko arazo larriena Ana Obregonen semeak jasotako haginkada zela"

modu txarrean heziz gero, pitbull asko baino arriskutsuagoa izan daitekeela.

ERABILERA DESBERDINETARAKO, TXAKUR DESBERDINA

Pertsona batek txakurra erosi behar duenean, oso garrantzitsua da txakurra zertarako gura edo behar duen jakitea. Ehizarako txakur bat gura izanez gero, alemaniar arrazako txakurra ez da egokiena, eta mendian gora eta behera ibiltzea gura duenak ez dezala bulldoga erosi. Azken batean, arraza bakoitzak gaitasun eta muga ezberdinak ditu, eta txakur bat edukitzerakoan, hori kontuan hartu behar da. Horrez gain, jabeak asko ikasi beharra dauka txakurra izan aurretik: hala nola zer motatako arraza den, arraza horretako txakurrek dituzten ezaugarriak eta txakurra ondo hezteko beharrezkoak diren pausoak zeintzuk

Udako kirol eskola 2001

Hamar urte, hamaika kirol!

Ikasturte amaiera badator eta horrekin batera udari begira daude Arrasate Kirol Proiektuko antolatzaileak. Dagoeneko zabaldu dute udako kirol eskolan izena emateko aukera.

Aurten, Burgosko Espinosa de los Monterosen izango da, hango parajeak eta ekintza eskaintza oparoa aprobetxatuz.

Ikasturtean egindako lanari jarraipena ematen dion ekintza honetan, 10 egunez udalekuetara joaten dira proiektuan ibilitako ikasleak orain arte begirale izan dituzten pertsona berberekin, uztailaren 2tik 11ra hain zuzen ere. 10 egun hauetan zehar, kirol jarduerak oinarri hartuta, hainbat ekintza antolatu dituzte. Horien artean, rafting jaitsiera, piraguan hastapena, mendi txangoa, kultura jolasak, olinpiadak eta beste hainbat.

Orain arte, hainbat ikaslek eman dute izena, eta baten bat animaturik balego, aukera izango luke. Horretarako, ikastetxeko kirol koordinatzailearekin harremanetan jarri beharko litzateke.

TAU BASKONIA-CAJA SAN FERNANDO

Arrasate Kirol Proiektuak Tau Baskoniarekin duen harreman ona dela eta, urtero partiduren bat ikustera joateko aukera eman ohi die ikasleei. Oraingo asteburuan, Caja San Fernandoren aurka jokatuko duen partidarako txangoa antolatu dute kirol proiektukoek.

Izena ematea eskola bakoitzean egingo da eta ikasle zein guraso eta langile guztiei zabalik izango da. Partidua domekan, hilak 13, izango da, 18:00etan. Autobusak 16:30ean irtengo du Garibaiko autobus geltokitik. Sarrera eta autobusa barne, 1.500 pezeta kostako da txangoa.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Hainbat talde sailkatu dira Gipuzkoako txapelketarako, bai alebin eta bai infantil mailetan. Aipatzekoa da infantiletan, bai nesketan zein mutiletan, saskibaloiko San Viatorreko taldeak final-laurdenetarako sailkatu direla, eta oraingo asteburuan Zarautzen eta Donostian jokatu behar dute.

GRUPO ARKAUZ

1950-2001

ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKAUZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ARKAUZ
ELEKTRAGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert

ARKAUZ
SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik

arrasate aretxabaleta INSTITUTUA

Zure etorkizunerako biderik onena



Hezkuntza Eskaintza

Batxilergoak
- Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa
- Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa
- Batxilergo Teknologikoa

A eta D Ereduak

Erdi Mailako Heziketa Zikloak
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Kontsumorako Ekipo Elektronikoak
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mekanizazioa
- Erizaintzako Laguntza Osagarriak

D Eredua

Goi Mailako Heziketa Zikloak
- Fundizio eta Pulbimetalurgia Bidezko Produkzioa
- Metal Eraikuntzak

A eta D Ereduak

Aurrematrikulazioa Batxilergotan

Maiatzaren 2tik 11ra

Goizeko 9:00etatik 17:00etara

(Ostiraletan 9:00etatik 14:00etara)

Aurrematrikulazioa Zikloetan

Ekainaren 1tik 12ra

Goizeko 9:00etatik 17:00etara

(Ostiraletan 9:00etatik 14:00etara)

Sta. Teresa, 25
Tel: 943 79 83 00 • 79 44 47
Faxa: 943 79 44 37
20500 ARRASATE

Etxebarri auzoa, 2
Tel: 943 79 79 00 • 79 79
Faxa: 943 77 09
20550 ARETXABALE

Etxeko azkena, ezin hobea

Kenci Arrasateko mutilek etxeko azken partidua jokatu zuten zapatuan, eta Iturripera hurbildutako zaleek kirol honetaz gozatzeko aukera paregabea izan zuten. Etxeko taldea Urdanetaren aurka aritu zen, eta arrasatearrak 107 puntu lortzeko gai izan ziren. Hasierako bi laurdenak nahiko parekatuak izan ziren, baina hirugarren laurdenerako, Lander Errastik zonakako defentsa agindu zuen eta taldeak hobera egin zuen. Kanpokoek falta ugari egin zituzten, eta arrasatearrek, falta horiek aprobetxatuz, alde garrantzitsua lortu zuten. Emaitza 107-84 izan zen. Oraingo denboraldiko helburua, lehen mailari eustea, aspaldi bete zuten Lander Errastiren mutilek, eta datorren asteko partidua, azkena, denboraldia zapore onez amaitzeko baliagarria izango da.

Euskadiko atletismo txapelketa

Oraingo asteburuan, Euskadiko taldekako txapelketa jokatuko da Anoetan. Zortzi taldek parte hartuko dute, eta Arrasate Kirolak taldea han izango da. Arrasateko taldea hogeita bi kirolarik osatuko dute, eta guztira 20 proba izango dira; atleta bakoitzak proba bakarrean soilik esku har dezake. Aurten, oso zaila izango da aurreko urteetako puntuazio mailari eustea, izan ere, kadete eta junior mailako atleta gazteak izango dira Arrasate Kirolak taldean.

Lider berriarekin ezin

Zapatuan jokatutako partiduan, etxeko taldeak liderraren aurka neurtu zituen indarrak, eta azkenaldian goiko postuetan izandako aldaketen ondorioz, etxean izandako azken bi partiduetan, Raul Leibaren mutilek liderraren aurka jokatu behar izan dute. Amaikak Bat taldearen aurka sekulako partidua egin eta gero, hiru puntuak etxean geratu ziren, baina aurreko zapatuan ez genuen talde bera ikusi. Bi taldeetako inork ere ez zuen nagusitasun argirik erakutsi, eta etxekoek baloi geldiko jokaldietan izaten zituzten aukera garbienak. Legazpiarren lehen gola 20. minutuan iritsi zen, Ilintxako aurrelaria atezainaren aurrean geratu zen pase bikain bat jaso eta gero, eta baloia loratuz huts eta batekoa egin zuen. Bigarren zatian ez ziren gauzak askorik aldatu. Rauli txartel horia erakutsi zion epaileak, protesta egiteagatik, eta Ilintxak bere jokoa egiten jarraitu zuen. Etxekoek aukera garbiren bat edo beste izan bazuten ere, kanpokoek egin zuten partiduko bigarren eta azken gola. Arrasateko taldea zazpigarren da sailkapenean, taularen erdialdean, eta datorren astean plaentziarren aurka jokatu beharko du.

Etxekoek ez zioten eutsi aurreko asteburuetako joko mailari.

Gambrinus
garagardotegia
- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Kadete mailan txapeldunak

Domekan, Deba arroko pilota txapelketako finalak jokatu ziren Antzuolan, eta kadete mailan, Arrasateko Zuazua eta Agirrek eskuratu zuten txapela. Finalean, Soraluzeko Txurruka eta Fernandezen aurka neurtu zituzten indarrak, eta partida gogorra bezain ikusgarria izan zen. Soraluzeko atzelariak, Txurrukak, lan handia eman zien arrasatearrei, eta plaentziarrak 21 eta 20 izan ziren aurretik. Arrasatearrek emaitza horri buelta emateko aukera ederki aprobetxatu zuten, eta berdinketako tantoa benetan ikusgarria izan zen. Sakea alde, Zuazuak ez zuen barkatu eta azken tantoa sakez egin zuen. Garaipenaren giltzak Agirrek erakutsitako segurtasuna eta Zuazuaren eskuin golpe gogor eta sake bizia izan ziren.

HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Aurreko asteburuan, herri arteko txapelketako joaneko partiduak jokatu ziren, eta Arrasateko bikoteek Azpeitian izan zuten hitzordua. Etxeko pilotariek ez zuten zortea aldeko izan, eta pilotaleku txikia izateak eta jendearen presioak gura baino eragin handiagoa izan zuten. Arrasateko hiru bikoteetatik, hirurek ere galdu zuten. Kadetetan, Deba arroko txapeldunek 22 eta 16 galdu zuten Azpeitiko Beobide eta Gurrutxagaren aurka. Gazte mailan, Uribarren eta Jimenezek hamalau tanto egin zituzten, eta nagusiek, Errasti eta Lazkanok, sekulako jipoia jaso zuten, 22 eta 4 galdu baitzuten Artetxe eta Peñagarikanoren aurka. Azken partidu horrek eztabaida sortu zuen, izan ere, Azkoitiako epaileak aukeraturiko materiala ez zen batere aproposa. Azpeitiarrek hamalau tanto errebotean egin zituzten, eta hori ez da batere normala. Oraingo asteburuan, itzulerako partiduak jokatuko dira Uarkapen, eta kadete eta gazte mailakoek aukera handiak dituzte Azpeitian jokatutako partidei buelta emateko.

Kiroldegietarako txartel bateratua

Debagoieneko kiroldegiek eta udal zerbitzuek aspaldidanik dihardute abonatu txartel bateratua sortzeko ideia lantzen. Txartel horrek Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñatiko kiroldegietara sartzeko eskubidea emango luke, kiroldegi bakoitzak bere abonatuendako ezarrita dituen baldintza berberekin.

Hasiera batean, ikertzen ari diren proiektu bat besterik ez bada ere, maiatzaren 2tik ekainaren 30era froga epea zabaltzeko asmoa agertu dute. Epe horretan Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñatiko edozein abonatuk gainerako kiroldegiak erabili ahal izango ditu. Jasoko dituzten datuekin txartel bateratuak izan dezakeen benetako erabilpena ezagutzeko aukera izango dute. Froga horrek emaitza positiboak emango balitu, txartel bateratua 2002. urtean jarriko lukete indarrean.

Emaitzak

PILOTA

- **Herri arteko txapelketa**

Azpeitia 3 - Arrasate 0

- Kadeteak:

Beobide-Gurrutxaga 22 - **Zuazua-Agirre** 16

- **Gazte maila:**

Zinkunegi-Lopetegi 22 - **Uribarren-Jimenez** 14

- **Nagusiak:**

Artetxe-Peñagarikano 22 - **Errasti-Lazkano** 4

- **Deba arroko txapelketako finala:**

Kadeteak:Txurruka-Fernandez 21 - **Zuazua-Agirre** 22

FUTBOLA

- **Erregional maila**

Mondra 0 - Ilintxa 2

- **Lehen mailako gazteak**

Mondra 10 - Zumaiako 1

- **Bigarren mailako gazteak**

Antzuola 4 - Arrasate 0

- **Ohorezko katedetan**

Arrasate 0 - Miren Bihotza 2

- **Bigarren mailako kadeteak**

Arrasate 2 - Behobia 2

SASKIBALOIA

- **Nagusiak**

Kenci Arrasate 107 - Urdaneta 84

Jokatzekoak

FUTBOLA

- **Bigarren mailako gazteak**

Domekan, 11etan Atxabalpen
Arrasate - Pasajes

- **Emakumeak**

Domekan, 16:00etan, Atxabalpen
Mondra - Antzuola

ESKUBALOIA

- **Lehenengo kadeteak**

Zapatuan, 16:00etan, Iturripen
Arrasate - Lasalle

- **Nagusiak**

Zapatuan, 18:00etan, Iturripen
Arrasate - Beasain

- **Gazte mailakoak**

Zapatuan, 19:00etan, Iturripen
Arrasate - Aloña

SASKIBALOIA

Zapatuan, 16:00etan,
Arrasate - Iraurgi-Fideo Mileto

Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Txap Dribling	17	14	1	2	101	36	**29**
Aurrera Bolie	17	11	3	3	71	45	**25**
Bikain Akad	17	10	4	3	96	60	**24**
AC Surcos	17	10	4	3	85	66	**24**
YK Azkena	17	11	2	4	68	55	**24**
IKP	17	11	1	5	77	63	**23**
Kom Alpargat	17	11	1	5	75	75	**23**
Goma2	17	9	4	4	75	56	**22**

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Iriztu	17	15	1	1	94	31	**31**
AT Celaya	17	13	1	3	87	49	**27**
Irati STS	17	12	1	4	10	62	**25**
Rayo Aldeano	17	11	2	4	113	59	**24**
Etxerat	17	11	2	4	105	56	**24**
Kamasutra	17	10	3	4	86	48	**23**
Usotz Potroak	17	10	2	5	69	37	**22**
AKTA	17	10	1	7	72	58	**21**
Pepelus.com	17	10	0	7	67	58	**20**
DKB Kobate	17	7	3	7	63	60	**17**
Fragel Gol	17	7	1	9	57	53	**15**
KJ Basati	17	6	1	10	76	80	**13**
Full Duplex	17	6	1	10	56	74	**13**
EPEH	17	6	1	10	41	62	**13**
Alai Gozokiak	17	3	2	12	40	91	**8**
Txotx	17	3	2	12	40	91	**8**
Abocajarro	17	3	1	13	55	108	**7**
Sas T	17	3	1	13	36	105	**7**
New Makai	17	2	2	13	33	122	**6**

B TALDEKOAK SOILIK

Oraingo asteburuan, lehen aldiko azken partidua jokatuko dute B taldekoek, eta datorren astean, bigarren aldia hasiko da. A multzoko sailkatuak dagoeneko erabakita daude, baina sailkatutakoek beste asteburu bat itxaron beharko dute futbolean jokatzeko. B multzoan, ordea, gauzak ez daude batere argi, eta Pepelusek Kamasutraren aurka jokatutako partiduan irabazten badu, AKTA kanpoan gera daiteke. Kamasutrak partidu bat ez epaitzeagatik bi puntuko zigorra dauka, eta oraingo asteburuan egoera bera gertatuz gero, gauzak asko aldatuko lirateke. Orduan ere partidu aurretik egokitu zitzaien epaitzea, eta ez ziren konturatu. Orain ere, egoera nahiko antzekoa da, hortaz, argi ibili!

FITXAKETA BERRIAK

Kamasutra eta Pepelus taldeek, hainbat jokalari min hartuta zituztenez, beste jokalariren bat hartzeko eskaera egin zieten antolatzaileei, eta onartu egin dute. Talderen batek bigarren aldiari aurre egiteko arazoren bat izango balu, antolatzaileei eskaera egiteko eskubidea izango luke, nahiz eta azken hitza antolatzaileek izango duten.

Hurrengo partiduak / 19. jardunaldia

Maiatzak 5, zapatua

Zaldibarren		Epaileak
11:00	Full Duplex - Txotx	Etxerat
12:00	Abocajarro - Etxerat	Full Duplex
13:00	Iriztu - Irati STS	Abocajarro
17:00	Usotz Potroak - KJ Basati	Kamasutra
18:00	Pepelus - Kamasutra	Usotz

Maiatzak 6, domeka

Zaldibarren		Epaileak
12:00	Rayo Aldeano - New Makai	DKB Kobate
13:00	Sas T - DKB Kobate	Rayo Aldeano

Atsedena: AKTA, AT Celaya, Alai Gozokiak



Ander Lipusen antzezlana

Geroago eta ezagunago egiten ari den Ander Lipus aktoreak emanaldia egingo du Arrasaten datorren egubakoitzean, hilak 11, Kultur Errota egitasmoaren barruan. *Minutu Bakarra* du izena ikuskizunak, Andergraund trilogiaren bigarren atalak, eta bakarrizketa izango da, lehenengoa moduan. Hura eskaintzen izana da gurean Lipus, eta otsailean ere ikusi ahal izan genuen, Txalo antzerki taldearekin *Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona* antzezlanean. Oraingo honetan, Olarte kaleko Jaizale tabernan izango da emanaldia, 23:00etan.

"MINUTU PATETIKO ETA MADARIKATUA"

Trilogia hori gaztelaniaz zen jatorrian, baina euskaraz ere eskaini zuen Ander Lipusek lehenengo bakarrizketa. Orain dela gutxi, bigarrena ere euskaratu du, eta joan den astean estreinatu zuen.

Minutu Bakarra izenburuak kutsu existentzialista du; aktoreak berak halaxe aurkeztu du monologoa: "Goibel etorri naiz, bai, zuei minutu bakar bat baino ez garela adieraztera; horixe baino ez garela, minutu bateko existentzia, ez dagoela besterik. Minutu patetiko eta madarikatu bat".

Margolan inpresionistak Toki-Ederren



Maiatzean, Jose Ramon Guerra Barbadillo margolariaren erakusketa izango dugu ikusgai herrian. San Andres auzoko Toki-Eder kafetegian eskegi ditu bere lanak 38 urteko bilbotarrak.

Paisaiak dira Jose Ramonen gai gustukoenak, bai barnealdekoak, baita itsas paisaiak ere. Hala ere, giza irudiak eta bodegoiak ere egin izan ditu, eta inpresionismo errealista moduan definitzen du bere estiloa.

16 SARI

Etxean betidanik ikusi izan ditu margoak eta mihiseak Jose Ramon Guerrak; izan ere, aita ere margolaria du, eta harengandik ikasi zuen. Hamasei sari irabazi ditu, gehienak Bizkaian, eta 15 bat erakusketa egin ditu, bakarkako zein taldekoak.

Sei milioi eta erdi kultura taldeei laguntzeko

Herriko kultura elkarteen artean 6.515.000 pezetako dirulaguntzak banatzea onartu du udalak. 15 talde onuratuko dira: Al-Andalus, ASA argazkilaritza taldea, Besaide mendizale elkartea, Corazon de Encina, Elkarri, Goikobalu, Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostaitz dantza taldeak, Arrasateko margo taldea, ARTE tailaginen elkartea, trikitixa eskola, Leintz zeramika eskola, Arrasateko gaiteroak, Aike-Acra eta Arrasateko txistulariak. Emari horiek hala eskatu duten herriko taldeen artean banatuko dituzte, betiere bakoitzaren beharrak eta ekintzak kontuan hartuta.

Dirulaguntzarik handiena Goikobalu abesbatzak jasoko du: 1.750.000 pezeta. Bestalde, trikitixa eskolak aurten 10. urteurrena ospatzen duenez, 350.000 pezetako laguntza berezia jasoko du.

'Comeme el punto', Iamai kafetegian

Martxoaren 4an, Legaleon talde donostiarrak *Comeme el punto* antzezlana taularatu zuen Amaia antzokian. Orain, berriz, bestelako giro batean gozatu ahal izango dugu antzezlan hau: Kontzeziño kaleko Iamai kafetegian, maiatzaren 4an, gauerdian.

LEKU TXIKIETARAKO

Ez da harritzekoa hain giro desberdinetara moldatzea antzezlana. Izan ere, antzerkia baino, kabareta da, eta kafetegiak eta tabernak dira bere giro naturalak; hala esan digu zuzendariak, Ana Perezek: "Oso leku txikietan antzezteko pentsatua dago *Comeme el punto*; horrelako 40 bat antzezpen egin ditugu. Eta arrakasta horregatik, antzokietan eskaintzeko deitzen hasi ziren. Ikuskizuna berdin-berdina da; jendearengandik askoz hurbilago izango dira, horra hor alde bakarra".

Comeme el punto antzezlanean, hainbat pentsalari eta idazleren testuak abiapuntutzat hartuz, tonu ironiko eta bihurriaz, sexuaren eta desioaren inguruko ideiak eta kezkak uztartuko dituzte Eva Lopez eta Amaia Sansinenea aktoreek.

Goikobalu, bigarren Griñonen

Bigarren postua ekarri du Goikobaluk asteburuan jokatutako lehiaketatik, Griñongo Abesbatzen Sari Handian. Emaitza ofizialak hemendik bi astera jasoko dituzte, baina hango adituen arabera, bigarren geratu dira arrasatearrak. Gasteiz, Murtzia, Tarragona, Madril, Caceres eta Valentziako abesbatzakin lehiatu ziren, Madrilgo Griñon hirian.

MAILA ALTUA

Orain arte parte hartu duten lehiaketen artean, honek izan du kalitaterik handiena: "Lehiakide guztiak bikainak ziren, eta irabazleak, Gasteizko Vocalia, apartekoak", dio Iñaki Maidaganek, zuzendariak.

Goikobalu gustura geldidu da emandakoarekin: "Orain arte egin dugun emanaldirik onena izan da", diote. Publikoa eta epaimahaia ere pozik sumatu zituztela esaten dute.

300.000 pezetatik gora saritan, bi lehiaketatan

Geroago eta ezagunago egiten ari diren bi lehiaketak aldi berria dute: batetik, udalak ASA argazki taldearekin antolatzen duen gazteendako argazki lehiaketa; eta bestetik, komiki ez sexistak.

GAZTEEN EKIMENAK

Hamabigarren aldiz antolatu da argazki lehiaketa. Gaia ipinita dago; aurten, "gazteen ekimenak" da. Bi kategoria daude: Debagoieneko 13tik 17 urtera arteko gazteena eta 18tik 35 urtera bitartekoena, azken horiek edozein lekutakoak.

Kategoria eta modalitate guztiak kontuan hartuta, 360.000 pezeta emango dira saritan: gaztetxoen kategorian, 40.000 pezeta izango da nagusia, eta bestean, 75.000 pezetako bi banatuko dira. Emakume Sailak 50.000 pezetako saria emango du. Parte hartzeko epea urriaren 11 izango da.

KOMIKIAK

Emakume, Gazteria eta Euskara sailek antolatu dute komiki lehiaketa. Gai konkretua librea izango da, eta uztailaren 28a izango da azkenengo eguna. 310.000 pezeta banatuko dira saritan: lehenengoa, 100.000 pezeta. Iaz, Unai Busturia mondragoetarrak irabazi zuen.

Monte taberna
Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak
• Fabrikako prezioa
• Erakusketa zabala. 2 solairu
• Kalitatea eta diseinua
• Azken berrikuntzak
Super Armeko
Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

INDUSTRIA DOLOR (MUSIKA TALDEA)

«Jendeak entzun gura ez dituen kontuez berba egiten dugu»

Oraingo egubakoitzan, hilak 4, Industria Dolor talde arrasatearrak Oñatiko gaztelekuan joko du, Steve Wynn-en aurretik. Jorge Agirrek, Rafa Ferreirak eta Francisco Izkuek osatutako industria-estiloko taldeak ez du emanaldi askorik egiten; hortaz, euren musikarekin gozatzeko aukera paregabea izango da.



— Gaztemaniak diskoan abesti bat grabatu zenutenetik, sumatu duzue hobekuntzarik?

— Ez, bakarrik Steve Wynn-ekin jotzeko deitu digute. Dena dela, kontzertuak prestatzeak lan handia eskatzen du, eta gurago dugu hirugarren maketa grabatzeko prestatzea. Disko bat egitea ere gustatuko litzaiguke, baina egitekotan, behinik behin, guk ekoiztu eta banatutakoa izango litzateke. Bestalde, interneten orri bat egin gura dugu. Gure posta elektronikoa honakoa da: industriadolor@euskalnet.net.

— Zelakoa izango da maketa berria?

— Lehengo estiloarekin jarraituko dugu, baina berritasun moduan, sintetizadoreak sartuko ditugu, eta gitarrak kanpoan geratuko dira.

— Oñatiko kontzerturako zer prestatu duzue?

— Hasierako taldea izanik, 35-40 bat minutu ditugu. Hortaz, zortzi edo hamar abesti joko ditugu. Besteak beste, Gutural talde donostiarraren abesti baten moldaketa eskainiko dugu.

— Guturalen omenezko disko baten ere parte hartu zenuten. Zuen eraginetako bat da?

— Ez; gure eraginak 1977tik gaurdainoko ia-ia musika guztia da, baina Gutural, zehazki, ez. Gustatu, ordea, gustatzen zaigu. Diskoari dagokionez, oraindik ez da argitaratu, eta uste dugu luzerako joko duela.

— Zelan konposatzen duzue?

— Batik bat, Rafak konposatzen du; gero, erritmoak, samplerra, organoa... sartzen ditugu, eta Franciscok baxua gehitzen dio. Azkenik, letrak ahokatzen ditugu, eta horixe da zailena. Gaiei dagokienez, jendeak entzun gura ez dituen kontuez berba egiten dugu: lehenengo maketan, heriotza mota desberdinez hitz egin genuen.

— Zuen soinua ezagutzen ez dutenei, zelan deskribatuko zeniekete berau?

— Iluna; batzuek techno-punka dela esan digute; besteek, techno-popa... Egia esan, etiketei ez diegu jaramonik egiten.

— El Desvan del Machon jotzen du Franciscok. Zertan da talde hori?

— Oraingoz, geldi samar; disko berria atera guran gabiltza, baina dirua ere behar da, eta... Edozelan ere, abesti guztiak buruan ditugu.

■

« Disko bat egitea gustatuko litzaiguke, baina guk ekoiztu eta banatutakoa izango litzateke»

aste gazte

■ AUZOLANDEGIAK

• Gazte-Kutxak uztail, abuztu eta irailerako auzolandegiak antolatu ditu Gipuzkoako hainbat herritan. 16-29 urte bitartekoendako. Epea: maiatzak 31.

• Madrilgo SCI elkarteak mundu osoan auzolandegiak antolatu ditu. Epea: maiatzaren 1etik aurrera, tokiak bete arte.

■ UDALEKUAK

• Foru Aldundiaren eskutik, udako programa, 14-17 urte bitartekoendako. Huesca, Bidarrai, Almeria, Castellon, Avila, Zarautz, Toledo eta beste hainbat lekutan ekintza egiteko aukera: arroilen jaitsiera, eskalada, mendi ibilbideak, ur-ekintzak, hipika, antzerkia, sorospena, bizikleta ibilbideak, bertsolaritza... . Epea: apirilaren 25etik maiatzaren 7ra.

■ UDAKO IKASTAROAK

• Udako ikastaroak hainbat arlotan, EHU-UPVk antolatuta, ekainean hasi eta iraila bitartean egingo dira jardunaldiak, ikastaroak, mintegiak, eta abar. Epea: maiatzaren 7an hasi eta izena emate kopurua bete arte.

■ IKASTAROAK

• Udaleko Gazteria Sailak antolatuta, bio-dantza ikastaroa, nork bere adierazpena, bizitasuna, sormena eta autoestimua lantzeko ikastaroa. Maiatzeko larunbat arratsaldetan, 16:00etatik 19:00etara. Izena ematea:: 4.000 Pta/2.500 ikasle edo langabeendako.

■ LANA

• Txatxilipurdik antolatzen dituen udalekuetan begirale gisa lan egiteko aukera. Epea: maiatzak 3.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

Zorionak, Arrasate Irratia!!!

Maiatzak 8, Asteartea, 10:15etik 13:00etara

Datorren maiatzaren 8an, urtea beteko da Arrasate Irratia egoitzaz aldatu zela. ARKOren eskutik, etapa berria hasi zuen herriko irratiak. Ordutik hona urtebete igaro da, eta data hori gogoratzeko saio berezia prestatu dugu. Zuzeneko musika-emanaldiak izango ditugu. Egunerokotasunetik atera eta festa giroa izango da nagusi martitzen goizeko saioan.

UMEAK ZORIONAK ABESTEN

Edozein urtemugatan abesten den legez, Arrasate Irratiari ere Zorionak kantatuko diote. Erguin herri eskolako umeak etorriko dira zoriontzera, 10:15ean.

EGUZKI TALDEA

Inguruko herri guztietako plazak alaitu ditu Eguzki taldeak, eta gurean ere asmo horrekin izango dira. Eguzki taldeko partaideekin egingo dugu berba, eta euren musikaz gozatzeko aukera izango dugu, 10:30etik aurrera.

ANGER

Musakolako musika taldea gogor ari da, eta laster izango dugu kalean euren lehen maketa. Euskadi Gaztean, entzuleek ematen duten sarian hirugarren geratu ziren. Ezinbestekoa, hortaz, herriko irratian izatea. Eguerdian, 12:00etan, Anger.

DISC-JOCKEYAK IRRATIAN

Urtemuga ospakizuna biribiltzeko, disc-jockeyak izango ditugu gurekin: Dj Kaiet eta Dj Kir-in. Disko jartzaile horiek moda-modako dantzaleku bilakatuko dute irratia, 12:30ean.

kontzertuak

BERGARAKO **JAM ETA GO-JAM**EKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Maiatzak 12: **No Code "Tresor night with"**
DJ James Ruskin
DJ Pacou
DJ Sender Berlin "stassy & Luke"
Wave sound

Egun hauetarako **SARRERAK** zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak: .....
Tel.: .....
Zein Kontzertu? .....

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31 edo deitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31.**

arrasate irratia FM 107.7

ASTELEHENA - OSTIRALA

09:00 **Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.**
09:55 **Eguneko hitzorduak.**
10:00 **Igo autobusera I.**
11:00 **Albistegia.**
11:15 **Igo autobusera II.**
12:30 **Agenda, eskelak...**
12:45 **Albistegi nagusia.**
14:00-18:00 **Errepika.**

ASTELEHENEAN

20:00 **Jokoz Kanpo.**
21:00 **Draxtor.**
22:00 **In Session.**

MARTITZENEAN

20:00 **Hi bizi hadi.**
21:00 **Jakidiplost.**

EGUAZTENEAN

20:00 **Binilo ordua.**
21:00 **KK2A.**

EGUENEAN

20:00 **Ostegun-Ero.**
21:00 **Arakatzen.**

EGUBAKOITZEAN

20:00 **Planing Prest.**
21:00 **Kale Doinuak.**

ZAPATUAN

10:00 **Bihurrikerietan.**
11:00 **Musika klasikoa.**
12:00 **Bi zoro ta zu.**

ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

beinke



TXIRRITA
Taberna
Garagardo ona
Giro hobea
Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

Inguruan mendi ugari eta politak ditugula-eta, mendira joateko zaletasuna ere badugu. Horren adierazle, oraingo asteko argazki zaharra. Arantzazun dago aterata, eta jakina, Urbiara igotzea zen gure lagunen asmoa. 1957. urteko abuztuaren 24a zen.

Berriemaileak kontatu digunez, asko kostatu zitzaien goraino heltzea eta "animo, Jeronimo!"-ka jardun zuten, elkarri indarrak emanez.

Azkenean lortu zuten helburua, eta oso nekatuta, baina pozarren itzuli ziren etxera.

Hauexek dira argazkikoak, ezkerretik eskumara: Achen Etxebarria, Jesus Mari Markaide, Mertxe Etxebarria, Begoña Etxebarria eta Marilu Markaide.

Argazkia eta berriemailea:
Achen Etxebarria.

ADI! HELBIDE BERRIA DUGU

Orain, San Andres 10 D.an gaude. Gasolindegiaren parean.

TAKOLO AUTOAK

53 P.K Tel.: 943 79 05 86. ARRASATE

Instalazio berriak
Auto erakusketa

OPEL

NAZIO ASKE BAT JAIOTZERA DOA

euskal herria

MITINA

Maiatzak 8 asteartea, 19.30etan
Sebero Altuben.

Aurkezlea: Xabier Zubizarreta.
Hizlariak: Jone Goirizelaia
Arnaldo Otegi.

BOZKATU

Euskal Herria

EH
Euskal Herritarrok

RENAULT

Clio Renault Sport V6

Asteburu honetan Mecan,
"zure Clio a" aurkitu dezakezu.

Eskaintza berezia, 10 Clio baino gehiago iaberriak prezio berezietan.

MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. **BERGARA.** Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa, 8. **ARRASATE.** Tel.: 943 71 24 72